

El amor a dos lenguas

ROBERTO MENDOZA PINTOREN BI POEMA

Itzultzailea: Iñaki Azkune Mendia

Roberto Mendoza Pinto eta Leoncio Francisco Caminoren *El Amor a dos Lenguas* poesia-liburuak 2007 urtean ikusi zuen argia (espainieraz eta portugesez), Idéia argitaletxearen eskutik, Brasilgo João Pessoa herrian. Bi poema ekarri ditugu orriotara; Mendozarenak, hain zuzen.

Roberto Mendoza Pinto, Buenos Airesen jaio zen 1947ko apirilaren 8an. Gurasoak Argentinako mendialdeko San Luis hirikoak (mendikate inguruak) zituen.

La Platako Unibertsitate Nazionalen egin zituen ikasketak. Han psikologian lizentziatu zen. 1981ean, arrazoi politikoak medio, Brasilera joan eta ipar-ekialdean finkatu zen, Recife-n lehenbizi eta Paraíba-n gero. Graduondoko ikasketak psikosoziologiaren arloan egin zituen Brasilgo UFPBn eta Euskal Herriko Unibertsitatean.

Orain irakasle da Brasilgo UFCG unibertsitatean, lan-psikologiaren arloan, Campina Grande hirian.

La tentación del manzano

(Para Liliana)

*Te moverás según normas
eternas a través de mil
y mil formas... y tienes tiempo
hasta que llegues a ser humano.*

Goethe

¡Viento, Remolino,
Aceleración, Movimiento!
Y se cayó la manzana.
La gravedad...
La tentación...
Que alimentó la larva.
La larva que alimentó
El gusano,
Que alimentó la mariposa,
La mariposa que alimentó
El pájaro,
Cuyo estiércol
Alimentó el maíz,
Que alimentó la campesina mano,
Cuyo excedente inercial
Alimentó al burgués-ciudadano...
Que en su libre gozo,
Inventó el razonamiento Newtoniano.
Y yo, que caí en tus brazos
– Atraído por tu fragancia centrípeta de manzano –
E inerme, por la inercia de mis perdidos pasos,
Me pregunto si alimenté algo.
Si alimenté
Tus manos,
Que acariciaron
Mis pelos enmarañados.

O si alimenté
Tus besos o tus pezones cálidos.
Si alimenté tu sonrisa
O tu corazón desamparado,
Si alimenté tu esperanza de pubis
O tu útero alado.
Si alimenté la acción de tu mirar,
La reacción de tu mirada,
Me pregunto amada, solo me pregunto...
Si te impelí adesvelar el regocijo de
La Gravitación Universal de los amantes.
Porque si no fue así,
Todo ha sido en vano:
La gravedad,
La caída de la manzana.
El gusano,
Mi humana tentación por tí,
El vuelo de pájaro,
Tu pie, mi pie,
La flor,
Tu mano.

João Pessoa (Brasil), agosto 2004

Sagarrondoaren tentaldia

(Lilianarentzat)

*Betiereko arauen arabera mugituko zara,
milaka formaren bidez... eta gizaki
izan arte izango duzu astia.*

Goethe

Haizea, Zurrunbiloa,
Azelerazioa, Higidura!
Eta sagarra erori egin zen.
Grabitazioa...
Tentaldia...
Larba elikatu zuena.
Larbak zizarea elikatu zuen,
eta honek tximeleta,
zeina txoriaren janari izan baitzen,
eta haren gorotzak
artoa elikatu zuen,
zeina nekazari-eskuaren elikagai bilakatu baitzen,
eta haren soberakin inertzialak
hiriko burgesa elikatu zuen...
Honek, berriz, bere atsegin lasaian,
arrazoibide newtondarra asmatu zuen.
Eta nik
– zure sagarrondo-lurrin zentripetuaz erakarrita –
zeure besoetara erori nintzen honek,
urrats galduen inertziagatik babesik gabe,
neure buruari galdetzen diot,
ea zure eskuak elikatu nituen,
zeintzuek nire ile nahasiak
laztandu baitzituzten,
edo ea zure musuak edo titiburu beroak
elikatu nituen,

ea zure irria elikatu nuen,
edo zure bihotz babesgabea,
ea zure pubis-itxaropena
edo utero hegalduna,
elikatu nituen,
ea zure begiratze-akzioa,
zure begiradaren erreakzioa,
elikatu nituen.

Neure buruari galdetzen diot, maitea,
galdetu baino ez...
ea maitaleen Grabitazio Unibertsalaren
bozkarioa argitzera bultzatu zintudan;
izan ere, horrela izan ezean,
dena funtsik gabea izan da:
grabitazioa,
sagarra erortzea,
zureganantz izan dudan tentaldi gizatiarra,
txoriaren hegada,
zure oina, eta nirea,
lorea,
zure eskua.

Joao Pessoa (Brasil), 2004ko abuztua

Habanera

Hay que endurecerse sin perder nunca la ternura...

Che Guevara

Morena,
Trae en tu cuerpo
todo el aroma ancestral
de las playas habaneras.
A Cuba entera.
Para que cuando huela tu piel,
y escuche extasiado
tu caracola marina,
sea transportado al mundo nuevo
– igualitario – que late
en las siete palmeras
que protegen tu pecho liberado.
En cada beso que en tí dé,
quiero sentir el agua del mar
envolviendo tu cuerpo,
los versos del Che
cantados por el pueblo.
Quiero escuchar el barullo
de los coqueros movidos por el viento,
y acoplarme a tu indomable movimiento.

Quiero sentir el aroma
de la arena y de las algas,
invadiendo mi caudaloso sentimiento.
Quiero ver el vaivén del mar
reflejado en tus ojos negros.
Quiero delirar y nunca más salir
del paraíso de tu cuerpo.
¡Oh, morena! ¡continente negro!
con mi puño en alto
– cabalgando juntos –
quiero diseminar tu aroma,
tu fragancia, tu meneo,
sembrar tu chispa,
tu fuego,
tu rebelde movimiento...
¡Por la América,
por el mundo entero!

La Habana, octubre 2002

Habanarra

Gogortu egin bebar da, samurtasuna inoiz galdu gabe...

Che Guevara

Beltzarana,
zatozkit
Habanako hondartzen antzinako lurrina,
Kuba osoa,
soinean duzula,
zure larruazala usaintzen dudanean
eta zure itsas kurkuilua
liluratuta entzuten dudanean,
zure bularralde askatua babesten duten
zazpi palmondoetan
taupaka ari den mundu berrira
– berdintasunezkora –
eraman nazan.
Zugan ematen dudan musu bakoitzean,
zure gorputza inguratuz
itsas ura nabaritu nahi dut,
eta herriak abestutako
Che-ren bertsoak ere bai.
Haizeak astindutako kokondoan
zalaparta entzun nahi dut,
eta zure mugimendu hezigaitzera egokitu.

Harearen eta algen lurrina
nire sentimendu emaritsura barneratzen
nabaritu nahi dut.
Itsasoaren kulunka
zure begi beltzetan islatuta ikusi nahi dut.
Eldarnioak izan nahi ditut,
zure gorputzeko paradisuatik inoiz irten gabe.
Ai, beltzarana! Kontinente beltza!
Ukabila altxatuta
– elkarrekin zaldiz goazela –
zure lurrina, zure usain gozoa,
zure mugimendua barreiatu nahi dut,
zure txinparta,
zure sua,
zure higidura menderakaitza
erein nahi dut...
Amerikagatik!
Mundu osoagatik!

Habana, 2002ko urria

El Amor a dos lenguas

Así se titula la obra de Roberto Mendoza Pinto y Leoncio Francisco Camino, publicada por la editorial brasileña Idéia en 2007. Reproducimos en estas páginas dos poemas de Mendoza, traducidas al euskera por Iñaki Azkune Mendia.

L'amour à deux langues

Tel est le titre de l'ouvrage de Roberto Mendoza Pinto et Leoncio Francisco Camino, publié en 2007 par la maison d'édition brésilienne Idéia. Nous reproduisons dans ces pages deux poèmes de Mendoza traduits en euskera par Iñaki Azkune Mendia.

Love for Two Languages

This is the title of a work by Roberto Mendoza Pinto and Leoncio Francisco Camino, published by the Brazilian publishing house Idéia in 2007. In this issue we include two of Mendoza's poems, which have been translated into Basque by Iñaki Azkune Mendia.